



EUSKARAREN EGOERA BERGARAN 2012

**ADIERAZLE NAGUSIAK eta
EGOERA ULERTZEKO GAKOAK**

**Euskara Biziberritzeko Plan berria
diseinatzeari begira prestatutako txostena**

Euskara Zerbitzua

2012ko urria.

AURKIBIDEA

0.- Txostenaren laburpena.

1.- Kaleko erabilera.

- 1.1.- Bilakaera guztira eta adinaren arabera.
- 1.2.- Bilakaera sexuaren eta adinaren arabera.
- 1.3.- Bilakaera auzoka.

2.- Erabileraren bilakaera ulertzeko gakoak

2.1.- Erabilera orokorraren bilakaeraren arrazoiak.

- **Gaitasunari begiratua.** Inmigrazioaren eragina.
- **Lehen hizkuntzari begiratua.**

2.2.- Adin-tarte bakoitzaren bilakaeraren azterketa eta etorkizunerako aurreikuspenak.

2.3.- Zenbait galdera.

1. **galdera:** Zergatik ez dute ume eta gazteek euskaraz gehiago egiten?
2. **galdera:** Zeintzuk dira euskaraz errazago egiten laguntzen duten faktoreak?
3. **galdera:** Zergatik egiten dute mutilek euskaraz gutxiago?
4. **galdera:** Zergatik egiten dute euskaraz gutxiago gazteek umeek baino?
5. **galdera:** Etorkizunean guraso gazteek euskaraz gehiago egingo dute?

3.- Une honetan bideratzen diren jarduera nagusiak

4.- Etorkizuneko helburu eta egitasmoak

0.- Txostenaren laburpena.

1.- Kaleko erabilera.	AZALPENA
1.1.- Bilakaera guztira eta adinaren arabera.	<ul style="list-style-type: none"> • Erabilera guztira. 1986az geroztik igotzen ari zen baina azken 2-3 urteetan jaitsiera txikia izan da. • Adinka, gehien erabiltzen dutenetatik gutxienera: umeak, gazteak, helduak, zaharrak. Biziberritzen ari den hizkuntza baten ordena. • Erabilerearen bilakaera adin-tarte bakoitzean: <ul style="list-style-type: none"> ○ Umeen erabilera egonkor samar azken 20 urteetan. ○ Gazteena asko hazi zen urte batzuetan baina azken urteetan zertxobait jaitsi egin da. ○ Helduena, 2000 ingurura arte beheraka, harrez gero goraka. ○ Zaharrena beheraka neurketak hasi zirenetik.
1.2.- Bilakaera sexuaren eta adinaren arabera.	<ul style="list-style-type: none"> • Guztira, alde handirik ez gizezkoen eta emakumezkoen erabileran. • Umeetan eta bereziki gazteetan aldea handia da: neskek askoz gehiago erabiltzen dute. Mutil gazteen erabilera asko jaitsi da azken urteetan: helduek baino emaitza apalagoak.
2.- Erabilerearen bilakaera ulertzeko gakoak	
2.1.- Erabilera orokorraren bilakaeraren arrazoiak.	Biztanle guztiak kontuan hartuta euskaraz dakitenen eta lehen hizkuntza euskara dutenen portzentajea murriztu egin da azken urteetan. Horiek dira erabileran eragiten duten faktore nagusiak.
<ul style="list-style-type: none"> • Gaitasunari begiratu. Inmigrazioaren eragina. 	Eustaten datuen arabera, 2001etik 2006ra euskaldunen % jaitsi egin zen %70etik %68ra. 1991tik 2001era erdaldun kopurua %30 murriztu zen. 2001etik 2006ra, berriz, mantendu. Tarte horretan 700 etorkin inguru etorri ziren.
<ul style="list-style-type: none"> • Lehen-hizkuntzari begiratu. 	Lehen-hizkuntza edo ama-hizkuntza euskara dutenen portzentaje handienak zaharretan daude. Zaharrak hil ahala populazio osoan lehen-hizkuntza euskara dutenak murrizten ari dira.
2.2.- Adin-tarte bakoitzaren bilakaeraren azterketa eta etorkizunerako aurreikuspenak.	<ul style="list-style-type: none"> • Euskararen aldetik ezaugarri onenak zaharrek (80 urtez gorakoek) eta umeek dituzte. ume eta gazteetan euskaldunak %90etik gora; zaharretan (80 urtez gorakoetan), euskaldunak %80 inguru eta lehen hizkuntza euskara zutenak %75etik gora... Inflexio-puntua: 30-34 urtekoetan. • Espero behar den bilakaera: ume, gazte eta helduen erabilera haztea eta zaharrena jaistea. • Puntu klabea izango da inmigrazioarena. Berreskurapena motelduko du.
2.3.- Zenbait galdera gazteez eta etorkizunaz.	
1. galdera: Zergatik ez dute ume eta gazteek euskaraz gehiago egiten?	Hainbat faktoreren eragina. Nagusietako bat, gaitasun erlatiboa. 13-14 urtekoen %30ek erdaraz euskaraz baino errazago egiten du lagun artean eta beste %30ek bi hizkuntzetan berdin.

<p>2. galdera: Zeintzuk dira euskaraz errazago egiten laguntzen duten faktoreak?</p>	<p>Erraztasuna hizkuntza ahalik eta esparrurik gehienetan erabiliz hartzen da. Ume eta gazteetan gehien eragiten duten arloak (zenbakitan, 8 urteko ume baten denboraren estimazioa %, Hezkuntza Sailaren <i>Euskara hiztun bila liburutik</i> hartuta):</p> <ul style="list-style-type: none"> • Familia transmisioa (25). Euskaraz errazago egiteko oinarritzko faktorea da lehen-hizkuntza (0-3 urtean ikasi duena) euskara izatea. 13-14 urtekoetan, lehen hizkuntza euskara ez dutenetatik (guztietatik %22) ia inork ez du euskaraz errazago egiten. Lehen hizkuntza euskara eta gaztelania dituztenetatik %22k egiten du euskaraz errazago. Familia transmisioa beharrezkoa da baina ez beti nahikoa: Etxean gurasoek euren artean beti euskaraz egin eta eskolan D eremuan dabilzan gazteen %19k dio lagunartean erdaraz errazago egiten duela. Eurengan beste faktore batzuk indar handiagoa izan dute itxuraz: eskolaz kanpoko munduak, ikusentzunezkoek...) • Eskola (gelako jarduna, 15). Osagarri oso garrantzitsua. Gaur egun 27 urte baino gutxiago duten guztiek D eremuan ikasi dute. Lanbide Heziketan %33 gaztelaniaz. • Eskolaz kanpoko jarduerak (25). Eskolak baina denbora gehiago hartzen du: jangela, autobusa, jolastokia, kirola, hizkuntzak, musika... Gaur egun, oro har, ume eta gaztetxoetan nagusiki euskaraz da baina ekintza batzuetan (kirola...) gaztelania gailentzen da adinean gora egin ahala. • Ikus-entzun-irakurtzekoen kontsumoa (25). Gero eta pisu handiagoa du. Egunean 3 ordu eta erdi inguru telebistan. Eremu oso erdalduna: 13-14 urtekoen erdiek ez dute azken hiru egunetan euskarazko telebistarik ikusi. • Lagunak (10).
<p>3. galdera: Zergatik egiten dute mutilek euskaraz gutxiago?</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Nesken euskarazko gaitasun erlatiboa hobea da. Kuadrillan nesken %44k egiten du euskaraz errazago eta mutilen %33k. • Eskolaz kanpoko mundua, neskena euskaldunagoa da Euskaraz diren ekintzetan (dantza, musika, instrumentua...) neskek presentzia handiagoa dute eta bestetik, aukera librea dutenean (irratia entzutean, liburu edo aldizkariak irakurtzean...) neskek mutilek baino sarriago aukeratzen dute euskarazkoa
<p>4. galdera: Zergatik egiten dute euskaraz gutxiago gazteek umeek baino?</p>	<p>Adinean gora egin ahala euskara murriztu eta gaztelania ugaltzen da hainbat ume eta gazterengan:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Familian. 3 urte bitartean umeari beti euskaraz egin dioten gurasoetatik % 15ek beti gaztelaniaz egiten dio 13-14 urte dituenetarako. - Eskolaz kanpoko arloa eta ikusentzunezkoak. Adinean gora egin ahala familiaren eragina murriztu eta gaztelania nagusi den beste gune batzuen handitzea da. Gazteentzako euskarazko eskaintza (ikusentzunezkoena, eskolaz kanpoko jarduerena, teknologia berriena, musikarena...) umeentzako baino txikiagoa.
<p>5. galdera: Etorkizunean guraso gazteek euskaraz gehiago egingo dute?</p>	<p>Bikote euskaldunak sortzeko probabilitatea asko handituko da laster. Gaur egun 30 urtez azpikoen %90etik gora euskaldunak dira. Gakoa, ea bikote euskaldunek euskaraz egingo duten. Gaur egun biak euskaldunak direnean, erdiek inguru egiten dute beti euskaraz eta %10 inguruk beti erdaraz. Garrantzitsua gazteekin lan egitea, bikote hizkuntza lehenengo harremanetan finkatzen delako, neurri handian.</p>

1.- Kaleko erabilera

Orain dela ia 30 urte hasi zen Bergarako Udala kaleko erabilera neurtzen. Azkeneko 20 urteetan urtero egin dira neurketak. Neurketa horietan hainbat aldagaien arabera erabilerak emaitzak lortzen dira: adinaren arabera, sexuaren arabera, auzoen arabera...

Emaitza horiek aztertuko ditugu labur.


1.1.- Erabileraren bilakaera guztira eta adinaren arabera.

Hemen urte desberdinetako neurketak multzokatu eta batez bestekoak atera ditugu.

1. taula. Euskararen kaleko erabileraren bilakaera adin-tarteka, urte multzoka. (%).

Urte-multzoka	Haurrak (0-14 urte)	Gazteak (15-24)	Helduak (25-64)	Zaharrak (65-..)	GUZTIRA
1983-89	56,9	17,9	34	59,5	37,4
1991-95	63,2	39,3	26,6	43,8	38,7
1996-2000	59,8	42,8	26,7	41,6	39,7
2001-2005	61,7	47,9	30,2	32,1	40,5
2006-2010	61,4	46,6	37,1	34,7	44,8
2011	57,6	44,7	36,0	26,3	41

1. grafikoa. Euskararen erabileraren bilakaera adin-tarteka, urte multzoka. (%).



BALORAZIOA

✚ **Erabilera guztira.** Denboran zeharreko bilakaerari erreparatzen badiogu, GUZTIRAKo datuan honakoa antzematen da: epe luzean hazkundera izan ondoren, 2006-10 urteetan igoera hori nabarmenagoa izan dela. Datu hori kontuz hartu beharrekoa da. Alde batetik, badu bere logika kontuan hartuta helduetan (25-64 urte bitartekoetan) goranzko joera dezentea nabari dela eta hori dela gizarteko multzo ugariena. Edonola ere, kontuz hartzekoa dela diogu, izan ere emaitza horretan eragin handia baitu 2006ko emaitza ezohiko batek (%52,8), eta azkeneko urteetako (2009-2011 bitarteko) emaitzak dezentez apalagoak izan baitira.

✚ **Erabilera adinka.** Azkeneko ia 20 urteetan gertatu izan den bezala, 2011. urtean ere haurrek agertu dute euskararen erabilera altuena eta ondoren gazteek jarraitzen diete. Bestalde, aurrean ere, azkeneko urteetako gehienetan gertatu den bezala, zaharrak dira erabilera apalena eman dutenak.

✚ **Adin-tarte bakoitzaren bilakaera.** Adin-tarte bakoitzaren bilakaerari erreparatuta, berriz, honakoa esan liteke:

- **Haurrak.** Aspaldiko urteetan nahiko egonkor dago %60 inguruan.

- **Gazteak.** 1983ko lehenengo neurketetatik hona adin-tarte honetan izan da igoerarik handiena: 30 puntukoa. Hala ere, 1998tik 2008ra, %45 eta %55 artean ibili ondoren, azkeneko urteetan hortik azpirako emaitzak izan dira. Ikusi egin beharko da hurrengo urteetan zer bilakaera duen.
- **Helduak.** Orain dela 10-15 urte inguru behea jo ondoren goranzko joera antzematen da azkeneko urteetan.
- **Zaharrak.** Zaharren bilakaerari erreparatuta, azkeneko urteetan erabilerak beheranzko joera nabarmena izan du eta ematen du behea jota edo jotzetik gertu egon litekeela, izan ere, emaitzok helduek izandako bajuenetik gertu baitaude. Nabarmentzekoa da lehenengo bi neurketetan (1983 eta 1988an) adin-tarte hau izan zela emaitzarik altuena eman zuena eta, aldiz, azkeneko 8 neurketetatik 7tan berau izan dela erabilera baxuena agertu duena.

1.2.- Bilakaera sexuaren eta adinaren arabera.

Biztanleria guztia kontuan hartuz gero, emakumezkoak dira urtero erabilera handiena agertzen dutenak, nahiz eta zenbait urtetan, aldeak txikiak diren.

Edonola ere, sexuen konparaketa adin-tarteka egiten badugu, bakoitzaren errealitatea desberdina da:


- Bai 25-64 urte artekoetan eta bai 65-... urte artekoetan sexuen arteko aldea txikia da. Helduetan emakumezkoek euskaraz gehitxoago erabiltzen dute eta zaharretan gizonezkoek gehitxoago.
- Haurretan eta, bereziki, gazteetan, ostera, aldea nabarmena da eta bi kasuetan ere emakumezkoek erabilera handiagoa dute, hurrengo taulan ikus litekeenez

2. taula. **Kaleko erabilera ume eta gazteetan, sexuaren arabera, urtez urte (%)**

	0-14		15-24	
	<i>Emakm.</i>	<i>Gizon.</i>	<i>Emakm.</i>	<i>Gizon.</i>
1997	58	52	58	45
2001	93	54	58	34
2002	61	46	54	22
2003	65	52	67	41
2004	71	61	63	36
2005	70	54	60	32
2006	71	70	53	48
2007	61	54	55	48
2008	68	55	71	37
2009	65,7	50	46,8	19,7
2010	63,3	60,5	54	27,2
2011	61,5	53,8	55,4	24,4

Esan bezala, alde hori oso nabarmena da, gazteetan. Ikus ondorengo grafikoa:

2. grafikoa. **Kaleko erabilera, 15-24 adin tartean, sexuaren arabera (%)**.



BALORAZIOA

Urte askotan gizonezkoen erabilera emakumezkoena baino 30 puntu inguru apalagoa da. Horixe, mutil gazteen erabilera baxua, da, hain zuzen ere, neurketak urte gehienetan azaltzen duen daturik kezkarrienetako bat. Azkeneko hiru urteetan, gainera, mutilen erabilera hori helduena bera baino baxuagoa izan da. Horixe da, hain zuzen ere, kaleko erabileraren neurketek agertzen duten ahulgune nagusia.

2.- Erabileraren bilakaera ulertzeko gakoak

2.1.- Erabilera orokorraren bilakaeraren arrazoiak.


Ikusi dugu urtez urte erabilera orokorrak goranzko joera izan duela urte batzuetan baina azken urteetan izan direla kopuru murriztagoak. Zergatik ote da hori?

Fijatu gaitezen 3 aldagaitan: gaitasuna, lehen hizkuntza eta etxeko hizkuntza. Lehenengo bi aldagaiek eragin zuzen-zuzena dute erabileran eta hirugarrena lehenengo bien ondorioa da nolabait.

EUSTATEk eskainitako azken datuen arabera (2006koak dira), 2001-2006 epean hiru aldagaiotan okerrera egin zen.

3. taula. **Bergarako biztanleen gaitasuna, lehen hizkuntza eta etxeko hizkuntza urtez urte. (%)**

	Gaitasuna Euskaldunen %	Lehen hizkuntza euskara	Etxeko hizkuntza euskara
1986	65,8	58,1	
1991	66,3	60,0	42,3
1996	68,4	56,9	38,3
2001	70,0	55,9	42,1
2006	67,8	53,0	39,5



Nola uler liteke hori? Zergatik jaitsi da euskaldunen eta Lehen Hizkuntza euskara dutenen ehunekoa.

Azter dezagun aldagai bakoitza zertxobait.

Gaitasunari begiratua:

1986tik 2001era euskaldunen %a haziz joan zen apurka-apurka; 2001etik 2006ra, ostera, 2 puntu murriztu zen. Kopuru absolutuei begiratzen badiegu, ikusiko dugu 1991tik 2001era erdaldun kopurua %30 murriztu zela baina 2001etik 2006ra kopurua mantendu egin dela.

4. taula. **Bergarako biztanleen gaitasuna, bilakaera urtez urte.** (kopuru absolutuak). Iturria EUSTAT.

	Euskaldunak	Ia-euskaldunak	Erdaldunak
1986	10109	2578	2685
1991	10140	1927	3236
1996	10292	1997	2760
2001	10219	2104	2273
2006	9679	2327	2261

Horren zergatia erraz ulertzekoa da: gaur egun bertan jaiotako guztiek euskaraz ikasten dutenez, erdaldun kopurua mantentzeko edo handitzeko modu bakarra kanpotik etortzea da.

Ez dugu 2001eko etorkinen kopururik baina Udaleko Ongizate batzordeak egindako azterketaren arabera, badakigu 2006an 726 zirela atzerrian jaiotakoak, 2004an baino 250 gehiago. Kopuru horren tamainaz ohartzeko pentsa dezagun Bergaran urtean 120-140 ume inguru jaiotzen dela urteko. Hau da, 2004tik 2006ra bitartean ia jaiotako ume kopurua beste etorkin etorri zen Bergarara. Horrek azaltzen du gaitasunean behera egitea.

Hona hemen kopuruon azalpena adin-tarteka:

5. taula. **Etorkinak adinaren arabera 2006. Iturria Udaleko Ongizate Zerbitzuaren txostena.**

Adin-tartea	Etorkin kopurua	Adin-tarte horretako biztanle guztiekiko %
0-10	75	6
10-20	75	5
20-30	220	10
30-40	187	8
40-50	104	5
50-...	65	1

Azpirarratzekoa da, portzentaje oso handia gaztea dela familia izateko adinean dagoena.

Lehen hizkuntzari begiratu. Garbi dago lehen hizkuntza euskara dutenak murriztearen arrazoi nagusia ere etorkinen multzoa dela baina, horretaz gain, bada beste faktore bat ere: 6. taulan ikus litekeenez, lehen hizkuntza euskara dutenen portzentaje altuenak oraindik ere zaharretan daude. Ondorioz, horiek hil ahala populazio osoan lehen hizkuntza euskara dutenen kopurua murriztuaz doa. Oraindik urte batzuk beharko dira joera hori eteteko.


2.2.- Adin-talde bakoitzaren bilakaeraren azterketa eta etorkizunerako aurreikuspenak.

Goian azaldu dugun moduan guztira hartuta, bergararren euskararen gaitasuna murriztu egin da eta baita lehen hizkuntza euskara dutenen portzentajea eta etxean euskara erabiltzen dutenena ere. Baina zer gertatzen da egoera adin-tarteka aztertzen badugu?

2001ekoak dira Bergarako biztanleriaren adinez adineko hizkuntza-ezaugarrien azkeneko datuak. Merezi du egoera demolinguistikoaren adierazle nagusiei begiratu bat emateak.

6. taula. **Lehen hizkuntza, gaitasuna eta etxeko erabilera adin-taldeka 2001. Iturria: EUSTAT.**

	Lehen hizkuntza, euskara bakarrik	Elebidunak	Etxeko erabilera euskara bakarrik
a5-9	63,7	96,5	53,2
a10-14	59,5	95,8	47,4
15-19	55,1	94,1	42,3
20-24	54,5	89,2	41,8
25-29	51	73,6	36
30-34	45,1	59,2	31,1
35-39	50,7	62,9	34,8
40-44	49,4	59,8	34,8
45-49	50,9	57,8	38,2
50-54	53	59,4	39,4
55-59	54,7	58,9	39,5
60-64	51,9	54,9	40,5
65-69	61	64,3	48,6
70-74	66,8	69,7	55,5
75-79	73,4	76,6	59,4
80-84	74,2	76,8	56,4
>=85	80,1	82,2	65,7
GUZTIRA	55,4	70,1	41,8




2001eko datuok ikusita honakoa ikusten dugu: ertzetakoak (ume zein gazteak eta zaharrak) zirela euskararen ikuspegitik ezaugarri onenak zituztenak: ume eta gazteetan euskaldunak %90etik gora; zaharretan (80 urtez gorakoetan), berriz, euskaldunak %80 inguru eta lehen hizkuntza euskara zutenak %75etik gora... Inflexio puntua 2001ean 30-34 urte zituen belaunaldian dago. Gaur horiek 40-45 urte inguruan dabilta.

Datu horiek estrapolatu eta, kanpoko eraginik ez balego, 2011n edo 2021ean adin-tarte bakoitzak izan beharko lukeen gaitasuna atera dezakegu.

7. taula. Euskaldunen % adin-tarteka. 2001eko EUSTATEN datuen proiektzioa eginda.

Urtea	0-14 urte	15-24 urte	25-64 urte	65 urtez gora
2001 (Eustateko datuak)	96	91	61	71
2011 (Proiektzioa)	96	96	69	66
2021 (Proiektzioa)	96	96	75	64



2001etik 2011ra haurretan ez dago aldaketarik, gazteetan gorakada txiki bat izan da, helduetan gorakada handitxoagoa eta zaharretan, berriz, jaitsiera. Horixe da hain zuzen ere, gutxi gorabehera, kaleko erabilerak erakusten diguna.

Etorkizunera begira zer? Goiko estrapolazioari jarraiturik, normalena izango litzateke helduetan gaitasunak gora egitea eta zaharretan behera eta, ondorioz, erabileran ere hori islatzea. Eta ume eta gazteetan zer gertatuko da? Gai korapilatsuagoa da hori eta 2.3. puntuaren argitzean ahaleginduko gara.

Edonola ere, esan beharra dago aurreikuspen horietan badela aldagai bat kontuan hartu ez dena: inmigrazioa. Ez da erraza etorkizunean faktore horren eragina nolakoa eta zenbatekoa izango den jakitea baina, zalantzarik barik, goian adierazitako proiektiook apaltzea ekarriko du.

2.3.- Zenbait galdera.

Goian azaldu dugu erabileran antzematen den bilakaera nahiko bat datorrela gaitasunaren bilakaerarekin, baina badira zenbait galdera oraindik erantzun gabeak:

1.- Haur eta gazte guztiak euskaldunak badira, zergatik ez da adin-tarte horretan erabilera handiagoa? Ume eta gazteetan gaitasunean goia jo badugu, erabileran ere goia jo dugu? Gazteetan ez dugu %50etik gora egingo? Zeintzuk dira horretarako gakoak?

2.- Neska zein mutil guztiak euskaraz badakite, zergatik egiten dute askoz gutxiago mutilek?

3.- Haur zein gazte guztiak euskaraz badakite, zergatik egiten dute gutxiago gazteek umeek baino?

4.- Etorkizunean guraso gazteek euskaraz gehiago egingo dute?

Ez dira erantzun errazeko galderak eta baliteke batzuetan iritzi mailan bakarrik geratu behar izatea baina ahaleginduko gara datuetan oinarritutako erantzunak ematen. Horretarako bi azterketatako emaitzak baliatuko ditugu: DBH-2ko ikasleei bi urterik behin pasatzen diegun galdeketa batekoak eta eskoletan lehen aldiz matrikulatzen diren umeen gurasoei pasatzen diegun galdeketa batekoak.


Goazen lehenengo galderarekin:

1. GALDERA: Zergatik ez dute ume eta gazteek euskaraz gehiago egiten?

Hainbat faktore aipa genitzake baina elebidun batek hizkuntza bat edo bestea erabiltzeko gehien eragiten duen faktoreetako bat **gaitasun erlatiboa** da: hizkuntza bat edo bestea erabiltzeko duen erraztasuna. Normalean errazen egiten duen hizkuntza erabiltzeko joera izango du hiztunak. Eta zein da Bergarako gazteen egoera? Bergarako DBH-2ko ikasleei pasatutako inkestak datuok ematen dizkigu:

8. taula. Orokorrean, zein hizkuntzatan hitz egiten duzu errazago koadrilakoekin?(%)

	Euskaraz errazago	Bietan berdin	Erdaraz errazago	Ez dut euskaraz hitz egiten
2000	53,5	13,4	28,5	4,7
2006	42,5	26,9	25,4	5,2
2008	28,8	31,1	34,1	6,1
2010	39	34	27	1



Beraz, DBH-2ko (13-14 urteko) ikasleen herenak inguru gaztelaniaz errazago egiten du lagunartean euskaraz baino eta beste heren batek bietan antzera. Egoera hori, gainera, ez da hobetu, behintzat, azkeneko 10 urteetan. Hor dago, beraz, gazteetan euskararen erabilerak gora ez egitearen arrazoi nagusietako bat. Euskararen gaitasunean oraindik badugu zer hobetua. Helburua haur eta gazteetan euskal elebidunak, euskaraz erdaraz baino hobeto egiten dutenak, sortzea izan behar du. Halaxe bakarrik lortuko da euskararen biziraupena segurtatzea.

Horrek beste galdera bat sortzen digu, jakina:

2. GALDERA. Zeintzuk dira euskaraz errazago egiten laguntzen duten faktoreak?

Hizkuntza baten erraztasuna erabiliaren poderioz lortzen da: zenbat eta gehiago eta toki gehiagotan erabiltzen den, zenbat eta hiztunaren bizitzako ordu gehiago hartzen duen orduan eta errazago.

«Abdefattah Kilitok behin idatzi zuen bezala, hitzak ez du antzik xaboiarekin. Zenbat eta gehiago erabili xaboi, orduan eta urrituago eta gastatuago; hitzak, ordea, alderantziz, zenbat eta erabiliago orduan eta aberatsago (...) horregatik dabil bizkor gaztelera eta makal euskara: jendeak berealdiko gauza pila egiten dituelako euskararen alde, salbu eta beharrezkoa den bakarra: hitz egin». Bernardo Atxaga.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak argitaratutako *Euskara Hiztun Bila* liburuan 8 urteko ume batek astean esna pasatzen dituen orduen kalkulu bat egin du:

D I N A	Eskola					familia	lagunak	ikus/entzun/ irakurtzekoen kontsumoa
	eremu kurrikularra (gela)	eremu ez-kurrikularra						
		autobusa, irteerak, ...	jolasaldia	jantokia + jolasak	Eskola orduez kanpoko ekintzak			
8 urte	14	5	2	6	13	26	10	26
	14	26						
	40							

Gazteagoetan familiak hartuko du toki handiagoa eta zaharragoetan familiaren lekua murriztu eta lagunak, ikus-entzunezkoek... irabaziko dute baina faktoreak neurri handi batean berdintsuak izango dira. Azter ditzagun faktore horietako batzuetan dugun egoera:

a) Eskola. Eremu kurrikularra. Gaur egun, 2012an, Bergaran 27 urte baino gutxiago duten guztiak derrigorrezko ikasketak D ereduan eginak dira. Euskaraz errazago egitearen aldeko faktore garrantzitsu bat izango genuke, beraz.

Beste kontu bat da DBH ondoren, Lanbide Heziketan edo unibertsitatean zer gertatzen den. 2011-12 ikasturteko datuen arabera, Bergarako ikastetxeetan eskaintzen diren Lanbide Heziketako erdi eta goi-mailako ikasketetan ikasleen erdia gaztelaniaz dabil. Hala ere, horietako dezente Bergaraz kanpokoak izango da eta ez dugu Bergarakoen datu zehatzik. Ezta Bergarako ikasleek unibertsitate-ikasketak zein hizkuntzatan egiten dituzten ere. Edonola ere, DBH ondoren euskaraz ikasten jarraitzea euskaraz erraztasun handiagoa lortzeko aldeko faktorea izango da eta gaztelaniaz ikasten ibiltzea gaztelaniaz errazago egitearen aldeko faktorea.

b) Familia. Pello Jauregiren *Euskara eta gazteak Lasarte-Orian (II)* liburuan honako hau adierazten da:

Ez ginateke oker ibiliko baieztatuko bagenu etxea dela hizkuntzazko sena, jarria, aberastasuna eta erraztasuna eskuratzeko berezko tokia. Eskolak ezin du bere ahalegin hutsez etxeak eman ez duena estali eta ordezkatu.

Zer diote gure datuek? Bete-beteen bat egiten dute baieztapen horrekin. Ikaslearen lehen hizkuntza eta lagunartean hizkuntza batean edo bestean egiteko duen erraztasuna alderatu ditugu:

9. taula. **Ikaslearen lehen hizkuntza eta kuadrillan hizkuntza batean edo bestean egiteko erraztasuna**

IKASLEAREN LEHEN HIZKUNTZA	EUSKARAZ ERRAZAGO (%)	BIETAN (%)	BERDIN	GAZTELANIAZ ERRAZAGO (%)
Euskara (guztietatik %58)	57	31		11
Biak (%20)	22	42		36
Gaztelania (%18)	3	33		64

Beraz, datuok garbi uzten dute: ikaslearen lehen hizkuntzak eragin nabarmena du gaitasun erlatiboan. Hala ere, ikusten dugu lehen hizkuntza euskara dutenen artean %40 pasa dela

bietan antzera edo erdaraz hobeto moldatzen dena. Horretarako arrazoietakoa bat honako hau izango da, noski: umeari lehen hiru urteetan euskaraz egin zioten gurasoetako %15ek beti edo gehienetan gaztelaniaz egiten diote 13-14 urte egin dituenetarako.

Baina horretaz gain, datuek esaten digute euren artean beti euskaraz egiten duten gurasoen seme-alaba guztiek ere ez dutela lagunartean euskaraz errazago egiten.

10. taula. **Gurasoen arteko hizkuntza eta ikasleak kuadrillan hizkuntza batean edo bestean egiteko erraztasuna.**

GURASOEN ARTEKO HIZKUNTZA	IKASLEAREN GAITASUN ERLATIBOA KUADRILLAN(%)		
	Euskaraz errazago	Bietan berdin	Erdaraz errazago
Beti euskaraz (%15)	67	15	19
Euskaraz nagusiki (%22)	53	38	10
Gaztelania nagusiki (%27)	45	35	20
Beti gaztelaniaz edo beste hitza. batean (%33)	16	35	47

Gurasoek euren artean beti edo nagusiki euskaraz egiten dutenean ere (kasu horietan seme-alabei ere beti edo gehienetan euskaraz egiten diete), % 60 inguru da lagunartean euskaraz errazago moldatzen dena eta beste %40 inguru bietan berdin edo gaztelaniaz errazago.

c) Ikus-entzun-irakurtzeko mundua. Ordutan familiak adinako tartea hartzen du 8 urteko ume batengan. Adinean gora egin ahala, dudarik barik, handiagoa. Zer datu ematen digute DBH-2koei pasatutako inkestek? Hona hemen:

11. taula. **Ikus-entzun-irakurtzeko kontsumoa.**

	Euskaraz	Gaztelaniaz	Ez dut egin
Telebista atzo. 1. aukera.	10	80	10
Aisialdirako webgunea gehien erabilia 1	51	38	9
Irratia atzo. 1. aukera	35	24	39
Egunkaria ¹ atzo	18	31	51
Aldizkaria azken 3 egunetan	14	40	46
Liburua azken hilean	32	42	26

Garbi dago arlo honetan gaztelaniaren nagusitasuna ikaragarria dela. Adibide gisa, esango dugu ia erdiak esaten duela ez duela azkeneko 3 egunetan euskarazko telebista programarik ikusi. Eta kontuan har dezagun, azken datuen arabera 3 ordu eta erdi inguru ematen dugula batez beste telebista aurrean.

d) Eskola orduz kanpoko ekintzak. Hainbat ekintzatan irakaslea, entrenatzailea edo monitorea zein hizkuntzatan zuzentzen zitzaizkien galdetu genien DBH-2ko ikasleei. Hona hemen emaitzak:

12. taula. **Zein hizkuntzatan jarduten du zuekin irakasle, entrenatzaile, monitore... edo dena delakoak...?**

EKINTZA	Beti euskaraz	Euskaraz gehiago	Erdaraz gehiago	Beti erdaraz	Ez dut aktibitate
---------	---------------	------------------	-----------------	--------------	-------------------

¹ %18 horretan 14 Goienari dagokio, jende askok egunkaritzat hartu baitu.

					hori egiten
Futbolean	14	10	11	3	62
Saskibaloian	5	5	7	6	77
Eskubaloian	6	2	2		90
Karatean	3	5	2	2	89
Gimnasia erritmikoan	3	2	3	1	91
Musikan	14	5	3	1	78
Instrumentuan	20	8	3	2	67
Dantzan	11	5	5		78
Ingelesean	18	10	13	16	42
Partikularrean	6	11	3	4	76
Informatikan	2	2	1	0	95
Marrazketan	3	1	2	3	91

Datuon arabera, euskarazko eskaintza da nagusi arlo honetan, baina erdarazkoa ere kontuan hartzekoa da.

3. GALDERA. Zergatik egiten dute mutilek euskaraz gutxiago?

Neska zein mutil denak eskolan D ereduari baldin badabilta, zergatik egiten dute mutilek askoz euskara gutxiago? Ez da erraza asmatzea baina pista bat edo beste emango ditugu.

- **Nesken euskararen gaitasun erlatiboa hobea da.** Logikoa da: gehiago erabiltzen badute, errazago egingo dute. Eta errazago egiten badute, gehiago erabiliko dute.

13. taula. Gaitasun erlatiboa nesketan eta mutiletan, esparru desberdinetan. (%)

		Euskaraz errazago	Gaztelaniaz errazago	Bietan berdin
Kuadrillan	Neskak	44	19	37
	Mutilak	33	35	30
Eskolako gaiez	Neskak	66	13	21
	Mutilak	40	20	40
Etxean	Neskak	51	24	15
	Mutilak	46	29	18

- **Eskolaz kanpoko mundua, neskena euskaldunagoa da:** alde batetik, euskaraz diren ekintzetan (dantza, musika, instrumentua...) neskek presentzia handiagoa dute eta, bestetik, aukera librea dutenean (irratia entzutean, liburu edo aldizkariak irakurtzean...) neskek mutilek baino sarriago aukeratzen dute euskarazkoa.

14. taula. Eskolaz kanpoko mundua nesketan eta mutiletan. Portzentaiak neska eta mutil guztiekiko.

	Beti edo nagusiki euskaraz %		Beti edo nagusiki gaztelaniaz		Jarduera egiten dutenak guztira %	
	Neskak	Mutilak	Neskak	Mutilak	Neskak	Mutilak
Futbola	31	19	5	21	36	40
Saskibaloia	3	18	14	11	16	29
Eskubaloia	2	14	0	3	2	17
Musika ikasi	27	9	1	6	29	16
Instrumentua	43	13	1	9	44	23
Dantza	28	5	3	8	31	13
Telebista, atzo	12	8	74	86	87	94
Irratia	42	29	31	17	75	29
Goienkaria, azken	44	33			44	33

alea						
Aldizkaria	19	10	43	37	62	10
Liburua, azken hilabetean irakurria	44	19	41	43	86	62
Partikularra	17	18	5	8	28	27
Inglesa	20	38	37	22	57	59

4. GALDERA. Haur zein gazte guztiek euskaraz badakite, zergatik egiten dute gutxiago gazteek umeez baino?

Batzuetan esan izan da adin batean, 12-13 urterekin erdarara pasatzen diren gaztetxoak gero 18-20 urterekin sentiberatzen diren neurrian, euskarara bueltatzen direla. Baliteke kasu batzuetan hala izatea baina orokorra ote da hori?

Gaur egun ez dago alde handirik umeen eta gazteen gaitasunaren artean, gorago esan dugun bezala, 27 urtez azpiko guztiak D ereduaren ikasiak baitira. Hala ere, kaleko erabileraren neurketak adierazten digunez, gazteek dezentez gutxiago egiten dute: 10-15 puntu gutxiago.

Gazteen pertzepzioan, berriz, erabateko aldaketa izan da azken urteetan. Hona hemen:

15. taula. **Gaur egun orain dela hiru urte baino euskaraz gehiago, gutxiago ala berdintsu hitz egiten duzula esango zenuke?**

	Orain lehen baino gehiago	Orain lehen baino gutxiago	Berdintsu	Ez dut inoiz euskaraz hitz egin
2000	43	9,9	47,1	---
2006	38,8	14,9	45,5	0,7
2008	28	29,5	42,4	---
2011	22	29	49	---

2000 eta 2006ko inkestetan ez bezala, 2008 eta 2011koan, DBH-2ko ikasleek adierazten dute lehenago euskaraz gehiago egiten zutela.

Zer arrazoi egon liteke handi eginaz doazen neurrian euskaraz gutxiago egiteko? Klase guztietakoak egongo dira, baina nabarmenenak iruditzen zaizkigun pare bat aipatuko genituzke:

a) Euskararen famili-transmisioa murriztuaz joaten da adinean gora egin ahala. Datuek hala diote: jaiotzean eta lehen hiru urteetan umeari euskaraz egin zioten gurasoetako %15ek beti edo gehienetan gaztelan egiten diote 13-14 urte egin ditueneko.

b) Adinean gora egin ahala, familiaren eragina murriztuaz doa eta gaztelan presentzia handiagoa duen guneean handitzen. Gazteentzako euskarazko eskaintza (ikusentzunezkoena, eskolaz kanpoko jarduerena, teknologia berriena, musikarena...) umeentzako baino txikiagoa da eta gazteek beste hizkuntza batzuetako eskaintzara jotzen dute, batez ere gaztelan aitzakora baina baita ingelesezkora ere.

5. GALDERA: Etorkizunean guraso gazteek euskaraz gehiago egingo dute? Bigarren galderaren erantzunean ikusi dugu gurasoek etxean euskaraz egitea eta umeari transmititzea dela seme-alabek euskaraz ondo ikasteko eta erabiltzeko bermerik onena. Baina zer aurreikuspen dugu arlo horretan?

Alde batetik, gaitasunari dagokionez, bertan jaiotako 30 urtez azpiko ia guztiak euskaraz badakitenez, gero eta probabilitate handiagoak izango dira bi gurasoak euskaldunak izateko.

Inmigrazioaren arabera, izan liteke datuok apaltzea baina edozein kasutan, pentsatzekoa da motelago bada ere, gurasoen gaitasunean gora egingo dela.

16. taula. **Gurasoen ezaugarrien bilakaera urtez urte. Iturriak** DBH-2koei pasatutako inkestan ikasleek esana 2006 eta 2010eko inkestak eta lehen aldiz matrikulatzen diren umeen gurasoei pasatutako galdeketa gurasoek eurek erantzundakoa.

Ume-gaztearen gaurko adina (gutxi gorabehera)	Bi gurasoek ondo dakite %	Gurasoen artean beti euskaraz %	Gurasoen artean beti edo gehienetan euskaraz %
20 (DBH2, 2006)	35	22	39
16 (DBH2, 2010)	42	15	37
8	52	27	38
7	48	31	44
6	52	29	43
5	45	23	35
4	60	27	47

Gakoetako bat izango da, beraz, ea euskaraz dakiten gurasoek euskaraz egingo duten. Lehenengo aldiz matrikulatzen diren umeen gurasoei galdetuta azken urteetan lortutako emaitzak hauek dira:

17. taula. **Gurasoen arteko erabilera, bi gurasoek euskaraz ondo dakitenean (%) Iturria:** lehen aldiz matrikulatzen diren umeen gurasoei pasatutako galdeketa gurasoek eurek erantzundakoa.

Umearen jaioturtea	Euskaraz	Gehienbat euskaraz	Gehienbat gaztelaniaz.	Gaztelaniaz.
2004	52	22	19	7
2005	65	22	7	5
2006	56	25	10	8
2007	53	27	13	7
2008	45	32	16	8
2009	61	20	11	6

Hau da bi gurasoek ondo dakitenean erdia pasatxok egiten du beti euskaraz baina bada beste %35-40 bat bi hizkuntzak erabiltzen dituen: %20-25 inguruk gehienbat euskaraz egiten du eta %10-15ek gehienbat gaztelaniaz. Datu horien bilakaera funtsezkoa izango da, beraz, euskararen etorkizunerako. Nola lor liteke emaitza horiek hobetzea?

Bi bide aipa genitzake:

- Batzuetan euskaraz eta bestetan erdaraz jarduten duten guraso horien jardunean eragitea.
- Baina, bereziki, epe ertain-luzeko lan bat egin eta gazteetan eragitea, izan ere, bikote hizkuntza normalean harremanaren hasieran finkatzen da.

3.- Une honetan bideratzen diren jarduera nagusiak

Esparrua	Ekintzak eta adierazleak
Esparru artekoak	<ul style="list-style-type: none"> Haur eta gazteei begira ditugun egitasmoak ahozkoatasunaren ikuspegitik baloratzea eta berbideratzea. Mintzolarekin batera bideratu nahi den proiektu pilotoa. Euskararen Eguna antolatzea. Aldi bereko itzulpenerako tresneria lagatzea. Herriko entitateei lagatzen zaie bilera eta batzarretan erabiltzeko. Udalaren egutegia argitaratzea.
1.a. Irakaskuntza	<ul style="list-style-type: none"> Motibazio-saioak DBH-4ko ikasleentzat. 6 ordu. Auto-gidari karneta euskaraz ateratzeko sentiberatze-kanpaina. Euskara maila hobetzeko errefortzu-saioak, eskola orduz kanpo (Jardun, Udal Euskaltegia, ikastetxeak): <ul style="list-style-type: none"> Maila baxukoa, etorkinentzat. 25 ume, batez beste. Maila ertainekoa: 50 ume batez beste. Lagunarteko hizkera tailerrak eskoletan, DBH-2n. 8 ordu. Gehixago eta Hobeto programa. Ahozko euskara hobetzeko saioak eta materialak. Dirulaguntzak: UEUn eta Idazle Eskolan parte hartzeagatik.
1.b. Euskalduntze-alfabetatzea	<ul style="list-style-type: none"> Udal Euskaltegian ikastaro aukera zabala. Ikastaro bereziak: etorkinentzat, bertako euskara lantzekoa... Ikasitakoa praktikatzeko aukera, Berriketan programa (Jardun). Auzoko programa, etorkinei begirakoa, Topagunearekin. Dirulaguntzak eta bekak, euskaraz ikasteko.
1.c. Familia	<ul style="list-style-type: none"> Guraso izan berriak sentiberatzeko materialak: aholkuen biorrikoa, kantu-liburuxka, CDa... Haurdunak sentiberatzeko materialak: liburua eta DVDa Euskarazko produktuen katalogoa, Ume txikiarentzako kantu eta jolasen DVDak
2.a. Administrazioa	<ul style="list-style-type: none"> Erabilera bultzatzeko plan berezia. Zenbait helburu: enpresen kontratazioetan euskara indartzea, herritarrek udalarekin harremanak euskaraz izan ditzaten bultzatzea, langileen ahozko jardun informala, Mizpirualde egoitzako plana...
2.c. Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak	<ul style="list-style-type: none"> Sentiberatze kanpaina. Teknologia berrietan euskarazko produktuen eskaria sustatzea, Jardunekin batera. Udal webguneak euskarazko baliabideen aldetik hornitu: toponimia, Koldo Eleizalde lehiaketako grabazioak, Gehixago eta Hobetoko materialak..
2.d. Esparru sozio-ekonomikoa	<ul style="list-style-type: none"> Sentiberatzea. Errenta aitortpena euskaraz egiteko kanpaina. Establezimendu komertzialentzako zuzenketa eta itzulpen zerbitzua.
2.h. Esparru soziokulturala	<ul style="list-style-type: none"> Udalaren kirol eskaintza (Agorrosineko ikastaroak...) euskaraz izatea bermatu. Udalaren kultur eskaintza (antzerkia, zinea, astialdiko ekintzak, kontzertuak...) euskaraz izatea bermatu. Kirola Euskaraz programa bideratu bailarako beste udalekin batera: monitoreen formazioa, sentiberatze-kanpaina... Kirol klubek jarduna euskalduntzeko egitasmoa: irizpideak adostea, Eskua proiektua hedatzea...
3.a. Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea	<ul style="list-style-type: none"> Herriko toponimia arautu eta zuzen erabiltzea bultzatzea. Diarulaguntza: Badihardugu elkarteak.
3.b. Hedabideak	<ul style="list-style-type: none"> Tokiko hedabideak diruz laguntzea: Goienarekiko hitzarmena. Euskarazko aldizkariak harpidetzak bultzatzea: Argia, Gaztezulo, Irria...
3.c. Liburugintza	<ul style="list-style-type: none"> Koldo Eleizalde lehiaketak antolatzea: ipuin idatzia, ipuin-kontaketa, komikia, bertsoa, irratsaioa...
5. Elkarte orokorrenentzako laguntzak	<ul style="list-style-type: none"> Jardun euskarazko elkarteak diruz laguntzeko hitzarmena. Nazio mailako erakundeentzako laguntzak: Kontseilua, Behatokia...